

# IRIZPIDEEN TAULA OROKORRA

PROZEDUREN FAMILIA	MOTA/PROZEDURA		ARAU ERREGULATZAIL EA	GAIKUNTZA	FORMULARIOA	IRAUNGITZE-DATA
Laguntzak, bekak, dirulaguntzak eta prestazioak  (zerga, tasa eta prezio publikoetako hobariak eta salbuespenak ere sartzen dira)	Aldizkakoak*	Izendunak eta zuzenak	Partida banakatueta aurrekontuak	<b>Aurkako iritzirik ez izatea</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>Ordainketa-betebeharrak (GSDN)</li> <li>Foru-ogasunen zerga-datuak (AEAT zerbitzuak eskatzne EZ badira)</li> <li>Gainerakoak</li> </ul> <b>Onespena</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>AEATren zerbitzuak</li> <li>Foru-ogasunen zerga-datuak (AEAT zerbitzuak eskatzen badira)</li> </ul>	Hitzarmen tipoa eta/edo formularioa	Gehienez 4 urte (edo PIDaren antzeko aldia), kontrol berriak ezartzen badira (erabilera*** eta auditoretzak), zerga-datuekin lotutako <u>kontratu txikiak</u> izan ezik.
		Arruntak	Prozedura arautzen duen araudia**		Eskaera-orrria	
	Aldizkakoak ez direnak		4/2011 DEKRETUA, urtarilaren 18koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzkoa		EJren formularioa	
	GLL					
Kontratazio publikoa	Kontratu txikiak		9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa	<b>Aurkako iritzirik ez izatea</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>Ordainketa-betebeharrak (GSDN)</li> <li>Foru-ogasunen betebeharrak (AEAT zerbitzuak eskatzen EZ badira)</li> <li>Gainerakoak</li> </ul> <b>Onespena</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>Foru-ogasunen betebeharrak (AEAT zerbitzuak eskatzen badira)</li> <li>Foru-ogasunen JEZ</li> <li>AEATren betebeharrak</li> </ul>	Eskaintza-eskaera	
	Gainerakoak				Baldintza-agiri orokorrak edo partikularrak	
Zehatzailea, ikuskatzailea edo ofizioz hasitakoa  (zergen likidazioak, enbargoak, diru-bilketa, ibilgailuak bide publikotik kentzea...)			Prozedura arautzen duen araudia**	<b>Legea</b> Foru-ogasunen zerga-datuak (Zerga-prozedura edo Zergaz besteko baliabide publikoen bilketa —92.1.b) eta 92.1.j)/m— artikuluak)	Ez dagokio	
Giza baliabideak (Enplegu Publikoa)			Prozedura arautzen duen araudia**	<b>Aurkako iritzirik ez izatea</b>	Eskaera-orrria	
Beste batzuk (Baimenak, lizentziak eta homologazioak, erregistroak eta erroldak (zergaz bestekoak), adopzioak, etab.)			Prozedura arautzen duen araudia**	<b>Aurkako iritzirik ez izatea</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>Foru-ogasunen zerga-datuak</li> </ul>	Eskaera-orrria	

**OIN-OHARRAK:**

- \* Aldizkakoa: Aldi baterako deialdi zehatza duen prozedura bat da, amaiera-data duena.
- \*\* Prozedurari buruzko berariazko araudia (udal-ordenantza, BFAren foru-araua, Eusko Jaurlaritzaren agindua...). Arau horiek prozedura horretarako kontsultatu behar diren datuak definitzen dituzte, eta, beraz, eskatutako elkarreragingarritasun-zerbitzuak.
- \*\*\* Erabilera-kontrolak: Gehieneko epea kontsumorik egin gabe: 12 hilabete (etete-abisua), eta beste 6 hilabete iraungitzeko. Egindako abisuen eta iraungipenen berri eman behar zaio lagatzaileari.

**GAI OROKORRAK:**

- Araudietatik eta formularioetatik, paperean zein formatu elektronikoan, elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez lor daitezkeen ziurtagiriak edo dokumentuak aurkezteko edozein eskakizun ezabatzea herritarrentzat. Era berean, *paperean aurkezteari* buruzko aipamen guztiak saihestu behar dira, hala nola "*aurkeztu beharreko dokumentazioa*", "*...-ren kopia*" eta abar.
- Gaikuntza Ez-aurkakotza denean, herritarrei informazioa eman beharko zaie formularioaren bidez, beharrezko datuak kontsultatzeari buruz, bai eta aurka egiteko eskubidea non erabil dezaketen ere (hori ez da interpretatu behar DBEOren 21. artikuluan eta DBLOren 12. eta 18. artikuluetan aitortutako eskubide gisa).  
Datuak irispidean izateko baimena behar bada, berariaz jaso beharko da.
- Ez dira baliozkoak araudiaren eta/edo aurrekontuen zirriborroak. Eskaerari buruzko araudia eta aurrekontuak argitaratuta egon beharko dira.
- Eskabideko "erantsi fitxategiak" atalean ez da araudiaren dokumenturik erantsi behar. Hala ere, formularioak, aurrekontuak eta baldintza-agiriak erantsi ahal izango dira.

**GARRANTZITSUA:**

- PROZEDURA-KODEA: Gutxienez 3 karaktere eta gehienez 20. Prozedura-kode bakarra.
- PROZEDURA-IZENAK: Ezin dute jaso zerbitzuaren izena, prozedura-kodea, lagatzailearen izena, ezta deialdiaren urtea ere.
- ARAU ERREGULATZAILEA: Arau espezifikokoak\*\* gailentzen zaizkie arau orokorrei.
- HIRUGARRENEN DATUAK KONTSULTATZEKO PROZEDURAK: Bizikidetzaren unitate bateko kideak izanez gero, haien guztien sinadura sartu beharko da eskabidean, edo, bestela, eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpen bat, gainerako kideei jakinarazi diela eta haren baimena duela adierazteko. (Adib. *Adierazten dut nire bizikidetzaren unitateko kideei jakinarazi didala haien datuak kontsultatuko direla, eta haien baimena lortu dut*).

**BESTE BATZUK**

- Irizpide-taula hau abian jartzeko, alde zuzeneko kontrolak (erabilerakoak\*\*\* eta auditoretzakoak) ekoizpenean benetan sartu behar dira.